

TURISMOA HERNANIN? ZERGATIK EZ?

Gurutze Amigorena (Udal Turismo teknikaria)

HERNANI



Hernaniko Udala

ongi etorri

bienvenidos

welcome

bienvenus



EUSKAL HERRIA PAÍS VASCO

Egungo egoeran, krisi ekonomikoa gora krisi ekonomikoa behera gabil-tzan honetan, turismoaz gogoeta egiteko une egokia ote den pentsatu-ko du hainbatek. Batez ere, Hernanik, historian zehar Gipuzkoa osoa lurralde industrialia izanik herri as-koren antzera, turismo jarduera ga-ratu ez duenean.

Dena dela, kontuan izanik azken ur-te hauetan antzematen ari dela turis-mo sektorearen garrantzia Euskal

Herriko ekonomia alorrean; eta gainera, ehun urte dirauen gaitzik ez dagoenez; udalerraren garapena eta bertako biztanleriaren ongizatea hel-buru nagusitzat hartuta, Hernaniko Udalak turismoaren aldeko apustu sendoa egitea erabaki du.

Erabakia hartu aurretik ordea, arlo berri honen bideragarritasuna neur-tzeko asmoz, urrats batzuk eman ziren 2003 eta 2004 urteetan. Horre-tarako, udalerraren ahalmen turisti-

koaren analisi sakona egin zen, eta ikerketa horren ondorioetako bat Hernanik garrantzi ezberdineko ba-liabide turistiko anitz dituela baiez-tatzea izan zen: sagardotegiak, Uru-mea ibaiaren ertza, Santa Barbara, Chillida-Leku, Aiako Harria, multzo megalitikoak, San Agustin komen-tua...

Aurten, Udalak kapitulu berri bati ekin dio turismoaren alorrean. Bate-tik, turismoa suspertzeko, bestetik

merkaturatzen hasteko, zenbait egi-
tasmo gauzatu hasi da.

Horietako bat "Ongi etorri" panelak
dira. Udalak bost sarrera natural
izan arren, aurten, Errekaldetik Her-
nanirantz datorren errepidean eta
Astigarragatik Hernanirantz dato-
rrean kokatu dira. Panel hauek
udalerrira sartzen diren guztiei ongi
etorria emateaz gain, Hernaniren
aurkezpen txiki bat egiten die, he-
rriaren adierazgarri diren argazkiekin
apainduta baitaude.

Era berean, interes anitz sortu duten
hiru diptiko argitaratu ditu Udal Tu-
rismo Arloak:

- Hernaniko plano turistikoa
- Nere Borda Parke Botanikoa.
- Hernani hirigune historikoa eta Monumentuak.

Ezin ahaztu ordea, sagardotegiak
gure herriaren kanpo proiektiorik
handienetakoa duten elementuak
direla. Hori dela medio, "Sagardoa
Hernanin" izeneko liburuxka plaza-
ratu da. Bertan, Hernanik antzinatek
sagardoarekin duen lotura azpima-
rratzeaz gain, edari identifikagarri
honen inguruko zenbait bitxikeria
irakur daitezke. Baina liburuxkaren
helburu nagusia irakurleengan ja-
kinguraren arra piztea da.

HERNANIKO PLANO TURISTIKOA

PLANO TURÍSTICO DE HERNANI

EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE POLÍTICA
COMERCIO Y TURISMO



EUSKO JAURLARITZA
DEPARTAMENTU POLITIKAZ
ETA TURISMOA



Hernaniko Udala



Hernaniko Parke Botanikoa




HERNANI

EUSKADI
atsegin handiz
con mucho gusto

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

Hernaniko Udala

HIRIGUNE HISTORIKOA, MONUMENTUAK



Argitalpen hauen ildotik, "udako proiektu" baten lekuko izan gara herritar guztiok: Urbieta kalean informazio turistikorako jarritako etxola. Batik bat bisitariari zuzendutako proiektua izan arren, biztanleriak bere udalerria ikuspuntu turistikotik begiratzeko hasteko bideetako bat izan daiteke. Gainera, bisitariari ez ezik herriko jendeari ere gune horretan eskaintako zenbait informazio ezezagun gerta dakioke eta, era berean, interesgarri.

Taulan islatzen ez diren bi datu:

- Donejakue Bideko erromes talde baten abuztuko gau bat igaro zuengure herrian.
- Jatorri euskalduneko argentinar baten Hernaniko txokoen argazki ugari, eta udalerriaren oihalezko bandera eraman zituen bere anaiak Argentinan duen jatetxea apaintzeko.

Datorren urteari begira, Udalak, homologazioa lortzen duten ibilbideekin egingo duen argitalpena. Oraingoz, Hernaniko Ibilbide sarearen diseinua prestaketa prozesuan dago, baina bost bat homologatuko dira ziurrenez. Erakargarria benetan hernaniar askorentzat!

Turismo informazio guneko erabiltzaileen datuak.

Jatorria	Uztailean	Abuztuan	Bi hilabeteetan
Hernani	177	49	226
Gipuzkoa	4	33	37
Bizkaia	2	6	8
Araba	0	5	5
Nafarroa	5	3	8
Galizia	0	2	2
Madril	15	7	22
Katalunia	18	92	110
Murtzia	0	2	2
Extremadura	1	0	1
Andaluzia	0	1	1
Aragoi	4	0	4
Valentziako Erk.	2	9	11
Kanariak	2	0	2
Ingalaterra	7	0	7
Italia	1	3	4
Txekia	0	5	5
Frantzia	0	4	4
Argentina	3	0	3
Kuba	0	2	2
Peru	0	1	1
Sahara	0	5	5
GUZTIRA	241	229	470

Orduan? Turismoa Hernanin? Zergatik ez?